

Hasiera batean lesio larririk antzematen ez bada ere, **traumatismo kraneoentzefaliko** baten ondoren konplikazioak sor daitezke. Beraz, funtsezkoa da gomendio hauek **lehenengo 24 orduetan** jarraitzea.

GOMENDIOAK



Agindutako medikazioa hartu. Ohikoa da intentsitate arineko buruko mina agertzea lehen 24/48 orduetan.



Etxean atseden hartu, argi eta zarata handiak saihestuz.



Elikagai arinak hartu kantitate txikitan, jatera behartu gabe. Ez edan alkoholik, ezta lasaigarriarik hartu ere.



Izotza jarri traumatismoaren gunean, oihal batean bilduta.



ALARMA ZEINU ETA SINTOMAK

- Konorte galera.
- Lo hartzeko joera ezohikoa edo mugitzeko zailtasuna.
- Buruko min iraunkorra, medikazioarekin hobetzen ez dena.
- Bat-bateko gonbitoak edo iraunkorrak.
- Ezegonkortasuna, izaeraren aldaketa edo jarrera anormalak.
- Argi eta garbi hitz egiteko zailtasuna.
- Begi-ninien tamaina ezberdina izatea.
- Gorputz-adarren bateko indar galera.
- Konbultsioak.
- Garondoko zurruntasuna.
- Odoljarioa edo likido argia ateratzea sudurretik edo belarrietatik.

Zeinu edo sintoma hauetakoren bat izanez gero, jo berehala Larrialdi Zerbitzura, aurretik egin dizkizuten txostenak eta proba osagarriak aurkeztuz.

